

Juan San Martin Liburutegia
“Idazlearekin harixa emoten”



ARGIANTZA

Pello Lizarralde, Erein, 2020

Iruzkina: Antxon Narbaiza, 2021-04-12



Wikipedia

https://labur.eus/Pello_Lizarralde

Basque literature

<https://labur.eus/lizarralde>

Auñamendi

https://labur.eus/lizarralde_pello

Sinopsia

Zinema aretoen inguruan ari den nobela honetan, Ramon Beitia dugu pertsonaia nagusia. Bere lana, gerente izendatu dutelarik, enpresak han-hemenka barreiatuak dituen aretoen egoera aztertzea da. Gauzak horrela, ikuskatzaile lanetan astebeteko bidaia bati ekingo dio.

Nobela honetan Lizarraldeko amaitzean dagoen mundu baten egitatea erakutsiz batera, agur egiten dio garai bateko mundu horri. Nobela aseztikoa, Lizarralderen prosaren estilokoa, non dena gorabehera handirik gabe pasatzen den, maiz prosa minimalista bat darabilela, pertsonaiek euren ekintzak burutzen dituztelarik espantu handirik gabe.

Gerenteak, zelanbait onartu egingo du negozio jabearen proposamena eta, oroitzen beltzetatik sikera ihesi nahian (emaztearen heriotza, adinaren ajeak), errutina bihurtuko zaion zinema-aretoen ikuskatzeari ekiten dio. Ibilbidea azkar ikasiko du buruz: elkarrizketa zinema aretoetako langileekin, herriz herri, zinemaz zinema. Eta areto bakoitzaren egoerari buruz txostena. Gero, hotelera. Biharamunean beste areto bat, beste arduradun batzuk, beste txosten bat eta berriro erreperidera beste leku batera.

Pertsonaien harian

Lehen pertsona eta hirugarrenean idatzia, Pelloren ohiko ñabardurak agertzen dira eleberrian barrena, eta, osagai batzuk aurreko nobeletan agertzen diren berberak dira: *eszenarioan* nekazari mundua –nekez ikusiko dugu hiririk edo biztanle askoko herririk– hautsa, beroa, arnas estua, bakardadea... eta taberna-jatetxeak zibilizaziotik urrunduak. Eta naturaren inguruko deskripzio aberatsen artean, gizakien arteko presentzia, atek ixtea eskatzen ari den jadanik negozio ez den baten inguruan. Pertsonaia gutxi batzuen inguruan egosten da trama: Ramon Beitia, gerentea, apenas agertzen den negozioaren jabea, Alfontso, haren ilobak negozioa izan dezala bere eskuetan nahi du osabak, eta, gero, zinema aretoetako beharginak: akomodadorea, txarteldegikoa, sindikalista, mahastizalea eta bere alaba. Eta beste inor gutxi.

Nobelaren denbora

Datak ere ematen zaizkigu, 1982ko irailaren 18tik 24ra doa nonbait narrazioa. (Eta egiazki horrela da). Astebetean besarkatzen duten egunak, astelehenetik igandera bitarte. Gerentearen esperientzia guztiak letra etzanetan agertuko dira.

Eta, jakina, ia berrogei urte geroago deus ez da berdin.

Argiantza, ilunantza

Nobelaren arrastoa jarraitu aurretik, badirudi bi hitzen ubera ere jarraitu beharko genukeela. Argiantza, ilunantza, hitzok, nobelari ederki datozkion bi termino baitira. Zerbait bete ez denaren seinale, hots, betetasunik eza adierazten dutenak. Eta, izan ere, horixe baita eleberri hau. Udazkenaren ataritan egina, mahatsak biltzen hasten ari diren garaian, alegia, bertan igaro ohi den giroa horixe da: uzta ederra iritsi da, baina ilunabarra bidean da, eta, naturan ez bezala, non gertakariak iragankorrek diren, alegia, itzul daitezke eta itzuli egiten dira jatorrira, Ramon Beitiaren bizitza ez bezala, harenak argi egiten du oraindik, bizitasuna badu, baina haize-zulo dezente erakusten du: arin nekatzen da, zorabioak ditu, beroa ezin du jasan, umorez ez dabil soberan, oraingo mundua ulertzea kostatzen zaio eta abar. Atzerakorik ez duen bilakaera.

Argia ikusten bada ere ahula da hura, eta ilun badago ere, ikus daiteke, horregatik argiantza, ilunantza¹. Osatu gabeko zerbait, azken finean. Baina bestalde, horixe behar du protagonistak: indar gutxiko argia, bestela bero egiten duela adieraziko du. Ez zaio komeni argi betea, hobe argiantza: bestela zorabioak izango ditu, izerdia xukatzen pasatuko baitu eguna.

Liburuaren kontrazalean esaten den bezala, beste hainbat gauza legez, joan doan dibertitzeko era bat, modu bat, mundu ludiko bat amaitzear dago: zinema; orain arte ezagutu dugun bezala, hots, areto handi eta jendez beterik erakutsi izan den artea, gaur egun ikus-entzun munduaren iraultzaren ondoren, zinemak, edo hobeto esanik arteaz gozatzeko era hori, beste formato batzuek aldarazten dihardute; egia da, zinema nekez desagertuko da baina garapen anitz izan ditu eta izango ditu, azken finean, zinematografikoaren ekarpen izugarri hark adar asko izan ditu azken hogeit hamar urtetan, gutxi gora behera.

Ramon Beitia jakitun da horretaz, zinema aretoen mundu hura hauskor izatetik desegite bidean jarri da. Eta zertzelada hori, hain zuzen, bere kotxea hartu eta herri ertain eta txikietan nabarmenago nabaritzen du.

Bere lana, iragarritako heriotza baten kronika da. Zazpi egunez iraungo duen begirale bidaiak, “bidaianta”, jakin bazekiena, egiaztatzen dio.

¹ Argia maite zuen Maritxu emaztea izan zenak, eta, horregatik, Mediterraneo aldera jotzeko gogoz izaten ziren.

Gerentearen errutina

Egunero bere ikuskatzaile lanetan egiaztatzen duen legez, gerentea ohartua dago zinema-aretoen negozioa ez dela dagoeneko negozioa, iraganeko gauza dela. Bere profesioaren jarraipena ere, adinarengatik hasteko, ez dio etorkizuna begi argiz ikusten uzten. Harentzat dena da iragana, dena da oroitzapen. Familiatik hasita: emaztea berriki hila du eta, inoiz, harekin batera ikusitako parajeak zapaltzen ditu berriro. Alabarekin ere badu harremanik. Bere zorabioek, zurbil aldiek, izerdiak eta bestelakoek zelanbait etorkizunari beldurra edo mesfidantza erakusten dute. Bidaia haren amaiera nahi luke berehalakoan bere errutinazko ikuskatze hura: errepidea-zinema-aretoak-errepideko taberna-jatetxea-hotela eta, biharamunean antzeko ibilbidea.

Arkitektura

Etsikortasunez idatzia dagoen kontakizun honetan, berriro ere, Pello Lizarralde proposatzen digun antolakuntza jarraituko dugu. Bi ezaugarri azpimarratuko genituzke haren prosa egiteko eran. Bata, egilearen kontatzeko era, darabiltzan narratzaile desberdinak eta, bestetik, zenbait baliabideren absentsia.

Atalen garapena

Nobelak ez du atal markaturik. Letra etzanetan, normalki, protagonista nagusia, Ramon Beitia, gerentea ari da, baina ez beti. Letra arruntetan, halaber, 1. pertsonan langileetako baten alaba, era adierazgarrian: gerenteak sorrarazten dion inpresioa, zirrara ematen digu. Letra arruntetan, oro har, narratzaile orojakilea agertuko da 3. pertsonan baina baita zinema aretoetako langileak, sindikalistak.

19 atalek osatzen dute, oker ez bagaude, nobelaren egitura. Hona, hurrenez hurren, beraien banaketa:

- 1.-Narratzaile orojakilea
- 2.- Letra etzanetan gerentea ari da 1. pertsonan.
- 3.- 1. pertsonan. 24 urtez zinema aretoko enplegatua izan dena mintzo da. Gerentearen deskripzio fisiko osatuena ematen du.
- 4.- 3. pertsonan berriro, **baina gerenteari jarraitzen dio.**
- 5.- Gerentea letra etzanetan, 1. pertsonan, *Atlantic* izeneko zine-aretotik hasi da ikuskaritza.
- 6.- 3. pertsonan, **gerentearen mugimenduak jarraituz.**
- 7.- Zinemagileko akomodadorea. Uste gabean Ramon Beitia agertuko zaio.
- 8.- Gerentea eta bere ajeak

9.- **3. pertsona orojakilea gerenteari begira.**

10.- 1. pertsonan. Gurasoek semeak osabaren lanpostu har dezan zineman nahi dute. Berak ez du garbi.

11.- Letra etzanetan gerenteak eguneko balantzea egiten du.

12.- Gerentea bere buruaz eta beste: zorabioak, beroaldiak eta abar.

13.- Gerentearen norabideaz, 3. pertsonan.

14.- Zinemako langilearen alaba gerentearekin. Aita mahastian ari da lanean.

15.- 1. pertsonan letra etzanetan. Gerenteak berak hitz egiten du.

16.- 3. pertsonan narratzaile orojakilea.

17.- langileen ordezkaria: lan-arazoak gerentearekin nola konpondu. Ataka estuan hartu dute gerentea.

18.- 1. pertsonan. Letra etzanetan: gerentea eta bere bakardadea.

19.- 3. pertsona, narratzaile orojakilea. Gerentearen azkeneko mugimenduak

Garbi dago, irakurleak arretaz irakurri behar duela kontakizuna, narratzailearen hizkera maiz hertsiaz jabetzeko. Ez da egilearen prosak arazoak sorrarazten dituela irakurlearengan. Aitzitik, Lizarralderen prosa ederra da, oro har, baina agian hiztun aldaketak nahas dezake irakurlea, adierazi dugun bezala, ez badabil adi.

Aipagarria da, nola video kamara bat bailitzan, gerentearen narrazioari (zer egiten ari den, norekin eta zelako inpresioak jasotzen ari den), berari begira dauden beste narratzaileek osatzen dutela, agertzen dituzten beren inpresio guztiz desberdinak ematen dituztela. Beraz, Ramon Beitiaren soslaia leku eta inpresio desberdinekin marrazten dute.

Belaunaldien arteko talka

Maisua da Lizarralde errealitate plano desberdinetatik jasotzen.

Adibidez, 52-56 orrialdeetan neska iristen denean mahastietatik gerentearekin egotera. "Iritsi naizenerako plazan zegoen". Aitak erakutsi dio alabari aurretik nola tratatu gerentea: ("egion edukazioz, esaion on Ramon").

Eta jarraitzen du: "Bere itxurak larderia eragin dit. Dotorea iruditu zait oso". Jakina, adinak ez du barkatzen. Neska alde horretatik ez da zaharraz gupida. Halere, ez da gaizki irtengo haren begiradatik. Bilgarria gustatu zaio baina edukia: "Nahiz eta bizkarra okertuxea izan, altua eta sendoa zirudien; ile urdin sarriak... : (...) eta, jarraian, gerenteak sorrarazten dion inpresioaz dihardu: (...) "ezin esan itxura ona zuenik" (53. orr.)

Hurrengo atalean, letra etzanetan, gerenteari dagokio neskaren itxuraz eta gazteriaz bere iritzia ematea. Disekzio xehetua egiten du gerenteak neskaz eta, bidenabar, gazteriaz, 59. orrialdean. Bere ezjakintasuna oraingo gazteez aitortuko du: “Ez dakit nolakoak diren oraingo gazteak, ez zer egiten duten, ezta nola mugitzen edo janzten diren ere”. (...) Hala ere, aurrean nuen neska beste garai batekoa iruditu zait: (...) Keinu bitxiak egiten zituen, mutiko batenak ematen zuten, eta aldi berean bazeukaten zera delikatu bat alaitasuna eta samurtasuna ezkututzen zituena”.

Baliabideen ekonomia

Arestian aipatu dugun bezala, Pello Lizarralderen prosak bere ezaugarrien artean, narratzeko era du bere-berea: haren prosa neurritsua, murrizta ere, agian, irudi lekiok bati baino gehiagori. Egilearen autua da noski beste edozein bezala: inpersonala, austeroa, soila izate horrek erakusten digun legez. Adibidez, berdin dio hitz bat, subjektu funtzioan agertu badu ere, behin eta berriro errepikatzeak sinonimorik eskaini gabe, zertzelada horrek lekarkeen astuntasuna edo monotoniarekin. Horrek guzti horrek pisu bihur lezake kontakizuna. **Gerentea** gora, gerentea bera, edota **gizona**, era berean, etengabe lerroz lerro, baliokideren batekin ordezkatu gabe, azpimarratuko genuke adibide bezala. Liburuari azkentzen duen ataltxoan, 77-84 orrialdetan, zazpi orrialdetan, alegia, **gerente** hitza, **34** aldiz errepikatzen da. Beste horrenbeste esan daiteke, gizona lexemaz. Edo emakume hitzaz, esaterako. 79. orrialdean aurkitzen dugun etsenpluan:

“Haurrari kosta egiten zitzaion buruari tente eustea. Hara, maitea, esan zion **emakumeak** haurrari (...) Haurrak berehala **emakumearen** bularrean bermatu zuen burua, eta **emakumeak** musu eman zion buruan eta masailean”.

Gutariko askok lehen **emakumeak** haurrari, **haren** bularrean erantsiko genioke, eta hirugarren **emakumeak**-en ordeztu, **andreak**, adibidez, idatziko genuke. Egilearen hautapenak dira noski.

Ostera, baditu nonahi pasarte politak. Esaterako, 63 orrialdeko polisindetona: “Errepidearen gorabeherak igarotzean gerenteak argiro jakin zuen sartua zela ordokiko azken kilometroetan. Atzeko ispilua egokitzeko keinua egin zuen orduan, **eta** ispiluak zerumuga beltz bat itzuli zion, **eta** beltz hura zeharkatzen argi zerrenda esnekara baten isla lausoa”.

Narrazioaz berriro ere

Baina dena ez da zuri ala beltz. Hain zuzen, paradoxa izanik ere, arestian aipatu dugun Lizarralderen hitz-lauzko soila, austeroa, ez da beti horrela gertatzen eleberrian barrena, lerro bikainak erakusten baititu egileak deskribapen oparoak eta ongi burutuak eginez. Esaterako, mahatsaren bilketa garaiaren inguruan margotzen dizkigun kuadroetan: bertaraino garamatza irakurleok ber-bertan egongo bagina legez. Errioxako parajeak gogorarazten dizkigu zuzen-zuzen.

Gerentea, etxe-mina duelarik, luze egiten ari baitzaio ikuskari lan hura, ilunabarrean bere hoteleko gelatik agertzen zaion panoramaz gozatzen ari da: “Balkoiko fokiak enara-habia bat argitzen zuen teilatu-hegalpean (...). Gero mahastiei begira jarri naiz. Ilargi argiak hilerri itxura ematen zion. Haizea epela zen oso eta aurpegia laztantzen zidan. Lurrak esne zikinaren kolorea zuen tarteka, eta zero ubela ehunka eltxok zeharkatzen zuten firrindan. Haiei begira zaudela errazagoa da datorrena ahaztea” (63. orr.)

Joan doan mundu baten argazki bikaina

Aipaturik geratu da nobelak islatzen duen giro etsikorra: mundu ikuskera bat joana da, zinema-aretoen negozioa bezala, zeina egia esatera, ez den inoiz handia izan, langileek eurak ere aldi batez baino ezin baitute bertan aritu, aparteko soldatatxo bat baino ezin dute amestu.

Gero, gerentea dator, zeina kontrolatu behar duen negozio bezalatsu, beherantz doan bere bitalitatean, nekez eutsi bait diezaioke lan erritmoari. Mapak darabiltza kotxean doala norabidea aurkitzeko! Gaurko egunean kokatu beharko bagenu eleberria, GPS sistemak baliatuz, nobelaren atal asko ez lukete zentzurik. Bigarren mailako errepideak baliatzen ditu bere auto-bidean. Errepide nagusietan auto gehienek pasatzen baitute, haien abiadurak ez du zerikusirik berearekin. *Bere* munduak ez baitu abiadura beharrik. Edota, publizitate estatiko erraldoiak ikusten dituenean filmak iragartzen, egun zaharkitua dagoen publizitate mota.

Bisitatzen dituen errepideko jatetxe-taberna, denda ere badira, iraganekeo hondarrak...

Bere garaiko gazteak ez ditu gehiegi ulertzen, arestian esan dugun legez, eurek ere ez bera seguruenik. Osasunak, edo osasun ezak, desberdintzen ditu. Baina ez beti. Esaterako, irailaren 23ko hartan, aitak bidalitako alabarekin duen harremanak besterik adierazten digu. Neskaren doinua eskertzen du haren keinuak, hegoaldekoek hain

dotore esaten dituztenak: “beti eskertuko diot dotorezia, elkarrekin egin dugun tartean ni bezalako agure bat entretenitzeko erakutsi duen gaitasuna” (60).

Gerenteari kosta egiten zaio sozializatzea, baina, egia esatera, ez da horretara etorri!

Herriz herri, ezagutzen joango den areto langileen egoera arrunt desberdina izan liteke. “Hemen ez dago ezer salbatzerik”. Dena ez dela errutina izango, langileek eurek ikusarazten diote. Orduantxe bakarrik, ikusiko dugu gerentea zurbil, zer esan ez dakiela.

Orainak, ez du gehiegi kezkatzen. Jubilazioak ez dio oraingoz tira egiten. Bere adineko lagunen errutinak ez du erakartzen. Nahiz eta alternatibak zalantza handiak sortzen dizkion. Beldur baita ez ote duen balio izango, akats larriak egin...

Iragan munduaz pentsatzen du nagusiki bere soliloquio edo bakarriketetan: haurtzarora, ama, aita, emaztearen falta, batez ere: “Maritxu hil zenetik nik bakarrik dakit nolakoak ikusi ditudan” (10); alabarekingo harremana...Iragana joana da, orainaldia, zalantzan, etorkizuna? Adinaren gauzak.

Euskara

Lizarralderen prosa aise jarraitzen du irakurleak. Ez dira perpaus luze-kateatuak. Naturaren eta haren bilakaera, bikain daude transkribatuak: fenomeno meteorologikoak, aipaturik geratu diren koloreen ñabardurak, usainak, pentsa liteke gizakiak definitzen denbora gehiegi erabiltzen ez duen bezala, ostera, euskara oparoaz ari da arestian aipatutakoetan. “Ezlekuak” deitu genituzkeenak gizatiar bihurtzen ditu narratzaileak: hautsa, legarra ...nagusi diren parajeak.

Euskara aldetik, badira hitz batzuk zeintzuen beste sinonimo batzuk ezagunagoak izan litezkeen: **alartzea**: atalase edo eskaratza esateko. **Elutxa**: masailean zulo txoa. **Talaka eman**: pelma, temati ibili².

² Errata gutxi, zorionez. 58. orrialdean: (...) “esan berriak zizkidanak”

Iritzia

Gure asteartetako tertulietan irakurri izan ditugu Lizarralderen zenbait lan (*Orbanak, Elur bustia*, oker ez bagaude), eta beraien baitan egiaztatzen ditugun ezaugarri batzuk nabarmentzen ditugu hemen ere. Protagonista nagusiaren hermetismoa, barnerakoitasuna, herabetasuna (“aitortu behar dut beti kostatzen zaidala galdetzen hastea”), nahiago bigarren mailako errepidetan ibili..., elkar hizketen urritasuna, bakardadea, inbertsonaltasuna, baina ere berean xehetasunzalea da³, eta, batez ere, ikusi dugun legez, literatura baliabideen erabilera berezia agertzen du, gizarte *moderno*arengandik urrundu nahia; irudi luke gainera, nekazari munduak erakartzen duela, bere ustezko egitasuna behintzat: erruralismoak...

Bestalde, panteismo baten ezaugarriak ageri dira kontakizunaren harian: naturaren eta haren fenomenoaren deskripzio zehatza eta ugaria, gizakien aldean oparoak, begien bistakoak dira.

Naturaren eta (g)izakiaren artean dialektika: materia garenez, haren parte gara, eta gu geu ere ez gara berez hiltzen eraldatzen baino. Baina gure izate pentsamendu-dunak ez digu bilakaera horretan asebetatasuna erdiesten. Ala bai?

Ñabardura guzti horiek eta gehiagok osatzen dute Pello Lizarralderen paisaia, unibertsoa. Horrek eragiten du haren prosak nortasun berezia agertzea. Ez du, inondik ere, egun, oro har, egiten den idazkerarekin zer ikusirik.

Elkarrizketa laburrak baina funtsezkoak, guri neurri batean Juan Rulfo handiaren itzala gogorarazten digu.

³Adibidez, 2. ataltxoan, azpimarratzekoa da enpresako enpleguak gerentearen mugimenduak azaltzerakoan, nola hark ñabardurarik txikienera ere erreparatzen dion: “Esku bat trajearen sakelara zuen eta soinu txiki bat ateratzen zen handik. Laster konturatu naiz boligrafoaren punta ateratzeko eta sartzeko gailua sakatzen ari zela etengabe.(13).

IDAZLEAREKIN HARIXA EMOTEN

<https://www.eibar.eus/eu/kultura/jsm-liburutegia>

<https://www.liburutegiak.euskadi.eus/eibar>



@EibarLiburutegi



@EibarkoLiburutegia



@eibarkoliburutegia



@eibarkoliburutegia

11



Juan San Martin Liburutegia

Bista Eder, 10 (Eibar)

Tel. 943 70 84 37

liburutegia@eibar.eus

